

Año LIII. urtea
131 - 2021
Urtarrila-ekaina
Enero-junio



FONTES LINGVÆ VASCONVM STVDIA ET DOCUMENTA

SEPARATA

Garibairen errefrauetako
diago: euskara, zakurrak
eta ustekabeko beste
etimologia batzuk

Borja Ariztimuño López

Sumario / Aurkibidea

Fontes Linguae Vasconum. Studia et Documenta

Año LIII. urtea - N.º 131. zk. - 2021

Urtarrila-ekaina / Enero-junio

ARTIKULUAK / ARTÍCULOS / ARTICLES

Gulibarko aldaeraren inguruan (eta 3 – Txulapaingo azpialdaera: Elbarrena)
Koldo Artola 9

Garibairen errefracuetako *diago*: euskara, zakurrak eta ustekabeko beste
etimologia batzuk
Borja Ariztimuño López 47

Emakumearen irudia Axularren *Geron*
Enara San Juan Manso 61

Arrangoitzeko euskararen bilakaera Kanadara igorri gutun pribatu baten argitan
Maitena Duhalde de Serra 89

Dialekto-berdintzeari Lezamatik begira: adinaren, generoaren eta hizkuntz
jarrerren garrantziaz
Azler García-Palomino 113

Mahats hitzaren etimologia
Julen Manterola, Markel Lizasoain 147

Ohar etimologikoa: *golde*
José Ignacio Hualde 179

ERRESEINAK / RESEÑAS / REVIEWS

Censura y Literatura. Memorias contestadas
Nerea Eizagirre 195

*El Vocabulario Pomier. Edición y estudio de un diccionario manuscrito
anónimo euskera-español*
Nerea Fernández de Gobeo Díaz de Durana 199

*Gipuzkoa antzinaroan: hizkuntzak eta eremu linguistikoak onomastikaren
argitan*
Jose M. Vallejo 205

Sumario / Aurkibidea

VARIA

Gipuzkoa in antiquity: languages and linguistic areas in the light of onomastics

Luis Mari Zaldúa Etxabe

213

Idazlanak aurkezteko arauak / Normas para la presentación de originales /

Rules for the submission of originals

237

Garibairen errefrauetako *diago*: euskara, zakurrak eta ustekabeko beste etimologia batzuk

El verbo *diago* de los refranes de Garibay: euskera, perros y otras inesperadas etimologías

The verb *diago* of Garibay's proverbs: Basque, dogs, and other unexpected etymologies

Borja Ariztimuño López
Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU
borja.ariztimuno@ehu.eus
<https://orcid.org/0000-0003-2345-7137>

DOI: <https://doi.org/10.35462/flv131.2>

Ikerketa hau «Lingüística histórica e historia de la lengua vasca» [IT1344-19] ikerketa-talde iraunkorraren (EJ) eta «Monumenta Linguae Vasconum V» [FFI2016-76032-P] proiektuaren (MICINN) barnean egin da. Eskerrak eman nahi dizkiot Joseba A. Lakarrari, lan honen lehen zirriborroa irakurri eta egindako oharrengatik; bai eta bi errebisatzaile anonimoei ere, haien zuzenketa eta iruzkin baliagarriengatik. Daudekeen akatsak oro, jakina, nireak dira.

Jasotze data: 2020/12/08. Behin-behineko onartze data: 2021/01/12. Behin betiko onartze data: 2021/02/06.

LABURPENA

Artikulu honetan Garibairen errefrau batean ageri den *diago* adizkiaz arituko naiz. Helburu nagusia da errefrauaren eta haren gaztelaniazko bi itzulpen ezberdinen azterketa filologiko-linguistikoaren bidez adizkiaren esanahi zehatza eta itxura bereko *diago* ‘dio’ laguntzailearekiko harremana argitzea. Ondorioz, eta euskararen behinolako aditz-morfologiako baliabideen bitartez, *dio* ‘esaten du’ adizkiarekin lotzen da, bai eta familia bereko beste zenbait hitzen etimologia berriak proposatu ere.

Gako hitzak: Garibairen errefrauak; aditz morfologia; filologia; etimologia.

RESUMEN

En este artículo trataré sobre la forma verbal *diago* que aparece en uno de los refranes de Garibay. Tiene como objetivo principal esclarecer, a través de un exhaustivo análisis filológico-lingüístico del refrán y sus dos traducciones, el significado exacto de dicha forma verbal y su relación con la homógrafa *diago* (auxiliar ditransitivo equivalente al estándar *dio*). En consecuencia, y mediante los antiguos mecanismos de morfología verbal de la lengua, se establece una relación con el verbo *dio* ‘dice’, a la vez que se proponen nuevas etimologías para otros miembros de su familia léxica.

Palabras clave: refranes de Garibay; morfología verbal; filología; etimología.

ABSTRACT

In this paper, I will deal with the verbal form *diago*, which appears in one of Garibay’s proverbs. Its main objective is to clarify, through an exhaustive philological-linguistic analysis of the proverb and its two translations, the exact meaning of the verbal form and its relationship with the homograph *diago* (ditransitive auxiliary equivalent to the standard *dio*). Consequently, and by means of the ancient mechanics of the Basque verbal morphology, a relationship is established with the verb *dio* ‘(s)he says’, as well as new etymologies are proposed for other members of its lexical family.

Keywords: Garibay’s proverbs; verbal morphology; philology; etymology.

1. SARRERA. 2. GARIBAIEN ERREFRAUAK. 2.1. Aurreko irakurketak. 2.2. Le-kukotasunen analisia. 2.3. Irakurketarako proposamena, filologia zehatza lagun. 3. DIA-GOTIK HARAGO ETA ATZERA *DIAGORA*: ADIZKIAREN ANALISI MORFO-LOGIKOAN SAKONTZEN. 3.1. Adizkiaren azalpen morfosintaktikoa. 3.2. Adizkiaren azalpen lexikoa. 4. ADITZEN MORFOLOGIAREN AUZIAN ETIMOLOGIA GEHI-GARRIAK. 4.1. **einon*, *oñon* ~ *iño* eta *inotsi*. 4.2. *eusi*, *era(u)si* eta *erau(n)tsi*. 4.3. *aun*, *txanpa* eta *jauki*. 5. ONDORIOAK. 6. ERREFERENTZIAK.

Sique illos loqui audires, canum latrancium memorares /
Berbetan entzungo bazenitu, adausika ari diren
txakurrekin oroitu zinateke.

(Aymeric Picaud, XII. mendea, apud Bilbao, 1994, 75. or.)

1. SARRERA¹

Ez dira asko euskarazko hapax ilunak (zenbatespen subjektiboa da, noski)², eta are gutxiago aditz jokatueta, baina azken horietako gehienek etimologiek argitzeke diraute (baita haien esanahi zehatza ere zenbaitetan)³.

1 Artikuluan aipatutako lan zenbaiten aipabidea: AndS (Andoingo sermoia) = Altuna & Lakarra (1990); Axular = Urgell (2015); EHHE = Lakarra, Manterola & Segurola (2019); Etxep = Altuna (1980); GarEr-A = Zubiaur & Arzamendi (1976); GarEr-B = Urkizu (1989) eta Zubiaur & Arzamendi (1976); Isasti = Mitxelena (1964/2011); Leiz = Leizarraga (1571); Lubieta = Bilbao (2021); OEH = Euskaltzaindia (2020); RS = Lakarra (1996). Besterik aipatzen ez dudanean, *Euskal Klasikoen Corpusa* (<https://www.ehu.eus/ehg/kc/>) izan dut iturri.

2 RStik kanpo, esan beharko nuke, beharbada. Zorionez, esanahi argia dute hartako gehienek ere, jatorrizko itzulpenari nahiz filologoen lanari esker (*behse*, *ekix*, *hendorea*, etab.; Lakarra 1996).

3 Geroan horiek ikertzen segitzeko asmoz, hemen jarriko dut behin-behineko zerrenda:

- Az ezac er[r]oya, **diratâ** beguia, / ta mutil guextoac / quendu deyque arguia (RS, 136)
- Chindurriari **daquitzeanean** egoac, galdu oi ditu gorputza eta besoac (Isasti, 21)
- othoy iauna **enguztaçu** lagun çure saynduyac (Etxep, I, 72)

Artikulu honetan ahaztuxe egon den adizkiotako bati buruz arituko naiz: Garibairen *diago*. Beharbada, gutxi gorabeherako esanahia (zehazki, testuinguruan duen adiera, etimologia gorabehera) aski argia duela iritzita, ez da askorik idatzi hartaz, eta aipatu duten ikertzaile gehienek ez dute haren osaeraz ezer argitu.

Nire hipotesia da Garibaik berak emandako bi itzulpen ezberdinek izan ditzaketela errefraua egoki interpretatzeko gakoak, batarekin ala bestearekin lerratu beharrean; eta haren edo berak bildutako testuen jatorriak ere eman diezagukeela adizkiaren osara argitzeko aztarnaren bat.

Bestalde, EHHE argitaraberrriak abiapuntu sendoa eskaintzen digu adizkiaren jatorrian sakontzeko eta hemen aurkeztutako hipotesiari loturiko beste zenbait ondorio etimologiko ateratzeko.

2. GARIBAIEN ERREFRAUAK

Lehenik eta behin, ikus dezagun arestian aipatu adizkia bere testuinguruan edo, hobeto esanda, testuinguruetan; birritan ageri baita, eta hori izan baita, hein batean, zalantzen iturria. Orain, ordea, korapiloa askatzen lagunduko digun oinarria dateke:

- (1) Por los que murmuran detras sin poder hazer daño, dizen:

Açean diagonac, vsean diago

Los que hieren detras hieren en vazio. (GarEr-A, 20)

- (2) Por los que hablan mal de otros en ausencia, dizen:

Tras en dize el q vazio en dize

Ace an diagon ac, use an diago

Quiere dezir: El que dize detras, dize en vazio. (GarEr-B, 39)

Ikusten denez, Garibaik berak bi eratara itzuli zuen errefraua; eta egundaino adizkia aipatu duten euskalari gehienek, esan bezala, edo zalantza agertu dute interpretatzeko orduan, edo ez dute iruzkinik egin.

2.1. Aurreko irakurketak

Lehen aldiz, dakidala, Urquijok azaleratu zuen irakurketaren auzia, hark egin baitzuen Garibairen errefrauen lehen edizioa:

- d. Hanbat ecirade andere larri / Merexi duçuna **narçaque** sarri (Etxep, XI, 4)
- e. Vste duc ecin othoitz daidiodala orain neure Aitari, eta **baitinguzquet** bertan hamabi legione baino guehiago Aingueru? (Leiz, Mt XXVI: 53)
- f. çoazte baquerequin, bero çaitetzte eta asse çaitetzte : eta **eztinguzteçuen** gorputzaren necessario diraden gauçac, cer probetchu duqueite? (Leiz, Iac II:16)
- g. Amaren seme bacocho naiz, ta, / arren, ondo ar **naroçu** (Laz, AL, 1144r)

Las formas *diagonac* y *diago* ofrecen dificultad, pues no conozco ningún verbo vasco que signifique «herir», ni «decir» al que puedan corresponder.

ATZEAN DIAGONAK UTSEAN DIAGO

El que dice (?) detras, dice (?) en vacio.

(Urquijo, 1919, 17. or.)

Hurrengo iruzkina Lafonen tesi erraldoian etorri zen, non Urquijoren zalantzazko hautua ('dice') bermatzen zen, beste itzulpena desegokia zela argudiatuz: «A mon avis, la seconde traduction [hieren] est erronée : dans *diagonac* et *diago*, l'agent est au singulier; de plus, le proverbe ainsi traduit ne s'applique pas bien à ceux qui *murmurent derrière*» (Lafon, 1943, 200. or.⁴).

Azkenik, Koldo Mitxelenak Orixeren liburu bati egindako erreseinan (hark hizpide dugun adizkia erabili zuela-eta) atzera ziurtasunik eza ekarri zuen, itzulpenaren auzia berriro irekiz:

Berdintsu gertatzen da *diago* eta bere senideekin. Dakidanez –eta poztuko ninduke bizi oker nagoela jakiteak–, euskal literatura guztian *behin* agertzen da adizki hori, Garibayk XVI. mendean jaso zuen esaera batean: «Atzean diagonak utsean diago». Jakin, ez dakigu ziur «dio» esan nahi duenik ere, bitara itzulia ageri baita: «dize» eta «hieren». (Mitxelena, 1956/2011, 498. or.)

Horiez gain, Lakarrak (1986, 1996) «*diago* adizkia» aipatu izan du, hapax edo hitz berezi gisa, baina bestelako iruzkinik gabe; Urkizuk (1989, 38. or.), alderdi honi dagokionez, ez zuen ezer erantsi, Lafonen sailkapenari jarraitu baitzion, «AGO» aditzaren formatzat aurkeztuz; eta Mounolek ere, ildo beretik, **ago* erroa aipatzen du bere tesi bikaineko tauletan (2011, 392., 397., 437., 440. or.).

2.2. Lekukotasunen analisisa

Orain arte egin diren analisiak aurkeztuta, eta datu berririk ezean, lekukotasunak berraztertu besterik ezin dagikegu, bai euskararen historian izandako aurrerapenez baliatuz, bai lekukotasunei berei bestela begiratuz, zehatzago aztertuta eta lehenago ikusi ez diren (edo ezberdin interpretatu diren) xehetasunak kontuan hartuta.

Hasteko, Ariztimuño (d. g.) laneko datuak eta proposamena izan ditzakegu abiapuntu. Han azaldutakoak laburbilduz, badirudi Gipuzkoa mendebaldean (eta Araba ipar-ekialdean) indikatiboko laguntzaile ditransitibo berezi bat izan zela⁵: **edunen* forma hirupertsonalak (edo, bestela adierazita, **jadun*, partizipio hori inoiz izan zen ez

4 Ondoren, *ago* 'aho' izena aditz-erro gisa jokatu zela proposatzen du (Lafon, 1943, 201. or.).

5 Eta badirau edo oraintsu arte iraun du, defektiboki bada ere, hizkera batzuetan: cf. Oñatiko *xao* 'dio', Bergarako *ja(o)zu* 'diozu', edota Legazpiko hitanoko *naoan* 'nioan', Lazarragaren zukako *naon* 'nion' adizkiaren kide zuzena. Ikus lekukotasun guztiak Ariztimuño (d. g.) laneko eranskinetan.

dakigun –eta beharrik ere ez zuen– arren). Formari dagokionez, 3. pertsonakoen berdinak dira Garibairen erretrauetakoak (cf. Otxoa Arinen *escatcen diagola Jaungoicoari* ‘eskatzten diola Jaungoicoari’). Alabaina, argi dago ez dutela esanahi eta funtzio bera: esan bezala, laguntzaileak dira hangoak eta aditz trinkoak honakoak; horrez gain, ez bide da gramatikalizazio biderik erraz azal lezakeenik ‘zauritu’ edo ‘esan’ adierako aditz bat indikatiboko laguntzaile ditransitibo gisa garatu izana (ikus beherago, dena den, etimologia-aukera ezberdinetarako).

Bestalde, gorago nabarmendutako zalantza berrartuz, ikusi dugunez, adizkiaren esanahi zehatza (edo literala) Garibaik ematen dituen gaztelaniazko ordainen arabera argitzen saiatu izan dira orain arte; eta hala beharko du, beste euskarririk ezean. Ordea, zein itzulpeni jarraitu? Urquijok eta Lafonek, agidanez, erretrauaren azalpeni («Por los que murmuran...» / «Por los que hablan mal...») eta (2)-ko lerroarteko hitzez hitzeko itzulpen bateragarriari («dize») begiratu zieten adizkiak berez zer esanahi zuen ebazteko. Dasadan, lehenik eta behin, *a priori* bat natorrela haien interpretazio orokorarekin (hots, ‘esan’ edo antzeko adiera zuela, eta ez ‘jo’ edo ‘zauritu’); alabaina, adizkiaren beraren forma ere azaldu beharra dago, eta horrekin interpretazio-aukera desberdinak eta, batez ere, zehatzagoak azaltzen dira.

2.3. Irakurketarako proposamena, filologia zehatza lagun

Hala bada, jatorrizko esanahiari dagokionez, hiru aukera dituzkegu: lehen itzulpena literaltzat hartu eta hori ontzat hartzea (‘jo, zauritu’); horixe bigarrenarekin egitea (‘esan’); edo biak batu edo azal litzakeen hirugarren bat bilatzea.

Azalpen formalei dagokienez ere, beste hiru aukera idoro ditut⁶:

i. *Jo* aditzaren forma trinkoa izatea:

- Joseba A. Lakarrak ere aipatu didan analisi honi bi oztopo nagusi ikusten dizkiot: batetik, *jok* ez du datibo-komunztadurarik izan eta, bestela ere, **e-(i-)don* berreraikitzea proposatu da (Ariztimuño, 2012), haren adierak eta beste aditz batzuekiko sarea kontuan hartuz; ez dirudi, beraz, *-a-* azaltzeko nahikoa denik.

ii. Arestian aipaturiko *diago* laguntzailearen erro berekoa izatea (hots **jadun* edo **edunen* forma jokatu ditransitiboa):

- Aditz honek inoiz ‘eman’ esanahia izan zuela pentsa genezake (cf. **enin* eta **eradun*; Mounole, 2015), eta zabaltze semantiko bat gertatu zela (cf. *eman* aditzaren beraren erabilera hori berori RSko 272. erretrauan: *Iac, emac, erac ta çeguioc trancart*), eta erretrauaren jatorria autorearen jaioterritik gertu ezarriko luke ziurtasun aski handiz (cf. Ariztimuño, d. g.).

6 Alde batera utziko dut, ageriko arrazoiengatik, erro/aditz guztiz ezezagun bat izatearen aukera.

Mahaigaineratutako eragozpenez gain, aurreko bi kasuetan azalkizun geratuko litzateke ‘esan’ adierarekiko itzulpena (Garibairen aieru etimologikoren baten ondorio izan zela pentsatzen ez badugu, bederen), eta, gorago esan bezala, hain zuzen horixe da oinarritzko esanahirik egiantzekoena.

iii. *-i(n)o-* ‘esan’ aditzaren forma ditransitibo berezi bat izatea:

- Garibairen errefracuetako *diago*, azken buruan, *dio* adizkiarekin lotua dela, alegia; edo morfologia zaharren bidez (**di-da-o-*), edo beste *dia-* hasieradun adizkien analogiaz eraldaturik (cf. beheragoko (3-8) adibideak, eta bereziki *di(g)oldiago* aditz-laguntzaile bikotea).

Xehetasun etimologikoak hurrengo ataletarako utziaz, bestalde, kontuan hartu behar da gaztelaniaz *herir* aditzak baduela adiera berezi bat, garaitsuko hiztegiatan⁷ ere ageri dena: ‘iraindu edo laidoztatu, bereziki hitzez edo idatziz’ (DRAE, s. v. *herir*; neure itzulpena). Hortaz, erraz irudika daiteke, bi itzulpenak kontuan hartuta, ‘esan’ edo antzeko adierako aditz bat *decir* nahiz *herir* aditzen bidez itzuli izana, literalago bata (2), eta errefracuaren esanahiari («gaizki esateari») lotuago bestea (1)⁸.

Hortaz, eta *di(g)o ~ diago* laguntzaileekiko analogiaren aukera erabat ezin bazter daiteke ere, morfologiaren bidea urratuko dugu jarraian, aberasgarriago gertatu ohi baita.

3. DIAGOTIK HARAGO ETA ATZERA DIAGORA: ADIZKIAREN ANALISI MORFOLOGIKOAN SAKONTZEN

Esan bezala *diagoren* oinarrian *-io-* gisa aipatu ohi dugun aditza badatza, erantzun beharreko lehenengo galdera da ea zer eransten dion morfo gehigarriak (**da-*) erro horri. Hala, bi bidetatik sar zitekeen aurrizkia adizkian: morfosintaxian edo lexikoreratorpenean. Ikus ditzagun bi aukerak.

3.1. Adizkiaren azalpen morfosintaktikoa

Lehen hipotesiari dagokionez, arestian aipaturiko Ariztimuño (d. g.) lanean aztertzen den *diago* laguntzaileaz gain, Gipuzkoako testuetan badira *dia-* hasierako adizki gehiago, maizenik oinarritzko argumentu-egituran datiboa txertatu zaiela adierazteko:

- (3) Beotibar, Beotibar, hic **diadutac** Martin de Oybar (Nafarren auhena; Mitxelena, 1964/2011, 67.-68. or.)

⁷ Covarrubias (1611, s. v. *herir*): «Herir de agudo, por alusion lastimar de palabra, tocando en la honra».

⁸ Bakoitza aurkezteko moldea ere esanguratsua da: itzulpen literala dakarren aldaera da (2), hain zuzen, leerroarteko glosa analitikoak dauzkana.

- (4) Ez **diaço**⁹ bacarric, / Çe an daz Presebal ylic (Mitxelena, 1964/2011, 81. or.)
- (5) zerren baldin nere proximoak ez **badiakit** niri zer juizio, zer sospetxa, edo zer murmurazio, edo ausentzia gaizto egin dodan beraren kontra (Otxoa Arin, *Doktrina kristianaren explikazioa*, 1713)
- (6) eguzquiari gala **diaramaio** / que del sol se lleva la gala (Lubieta, 247)
- (7) béste onguille bätzuec dira oníc ascó ta ïori **diacartzigútenac** (AndS, 76)
- (8) Eleizá berri horréc cer on **diacart** niri? (AndS, 79)

Garibairen errefrauak (haren itzulpenetan ere islatzen den bezala) ageriko datibo-argumenturik ez duenez, ikuspegi honen alde leudeke (edo behinik behin bateragarri lirateke), halaber, zenbait errefrautan (9-12) eta Axularren obran (13-14) aurkitu ditudan adibide hauek:

- (9) Gaza lora ditean artean beste gauza **lecusque**. En tanto la sal floreciese otra cosa se vería (RS, 145)
- (10) Aramayo, dabenac ez **lemayo**. A Aramayona, quiê la tiene no la daría (RS, 284)
- (11) **Maemana** daqui emayten. Lo que no se le escusa de dar sabe dar (RS, 307)
- (12) Eci eguiña arria baño gogorrago. Arriari maluz ere **baledeco**. El no poder, más duro que la piedra: a la piedra se puede quitar con el martillo (Isasti, 26)
- (13) hobe da gizonekin ihardukitzea, eta hetarik ethor ahal **dakidikaion** kalteari igurikitzea, ezen ez Jainkoa baithan eta haren miserikordian fidaturik bekhatu egi-tea (Axular, 83-89)
- (14) Gauza gaizki egina da, eta itsusia, adiskideari deiez dagotzunean, ez ihardes-tea, athean iguriki arazitzea; eta berehala eman ahal **diazaion** errepuestaren eta egin ahal **diazaion** zerbitzuaren geroko luzatzea (Axular, 304-5/6)

Adibideotan, delako aditzaren ohiko konfiguraziotik argumentu bat (ergatiboa edo datiboa) «inpersonal» gisa interpretatu behar da; alegia, egun aditz laguntzaileen bidez *dezake* → *daiteke* (cf. 9), *lioke* → *luke* (cf. 10), *zion* → *zitzaion* (cf. 11), *liezaioke* → *lekiokke* (cf. 12), *dakioke* → *daiteke* (cf. 13) edo *diezaioke* → *dakioke* (cf. 14) erako aldaketekin adierazten duguna.

9 Adibide hau da eztabaidagarriena, ez baitago argi zeri egiten dion erreferentzia itxuraz daukan datibo-komuntadurak, baina cf. Larramendik bere hiztegiko *etzan* sarreran bildutako *diatza* 'datza' eta *diatza* 'dau-tza' (Mitxelena, 1964/2011, 83.-84. or., 1979/2011, 49. or.).

3.2. Adizkiaren azalpen lexikoa

Bigarren hipotesiaren ildotik, ordea, gerta zitekeen jatorrizko datibo-argumentua (zena zela haren rola), fosildurik geratu izana, beste adizki batzuetan bezala (cf. **edun* vs *eduki*), eta beti forma horretan erabiltzea, syntaxian bestelako argumentu-egitura erakutsita bazen ere.

Hipotesi honen alde, hain zuzen, ageriko datibo argumenturik ez izatea legoke. Hala, jatorria gorabehera, oinarritzko argumentu-egitura hartuko/gordeko zuen aditz eratorriak (cf. (*a*)*urtiki* ~ *jaurtiki*, *erion* ~ *jarrio*, *ilki* ~ *jalgi*, eta, beste morfo batekin, *jarrain* ~ *jarraiki* edo *erein* ~ *erei*, esaterako).

Areago, pentsa liteke delako morfoak ez zuela ezinbestean (edo soilik) argumentu-egitura aldatzen eratorpenean, baizik eta bestelako ñabardura bat eransten oinarritzko esanahiari (cf. *edan/jan*, **edin* ‘bihurtu’ / *jin* ‘etorri’¹⁰ eta, atzizkiarekin, **edun/eduki* edo *jardun/iharduki*¹¹, adibidez).

4. ADITZEN MORFOLOGIAREN AUZIAN ETIMOLOGIA GEHIGARRIAK

Nolanahi ere, erro beretikotzat berreraiki diren beste hitz batzuen esanahiari (eta, aditzen kasuan, argumentu-egiturari) begiratzea besterik ez dugu jabetzeko oraindik ongi ulertzen ez ditugun eta ilun ageri zaizkigun gorabehera diatetikoak jasan dituztela aditz-erroek, aurrizki-atzizki ezberdinekiko harremanean. Hortaz, datozen azpi-ataletan EHHEko zenbait sarreraren eta haien arteko loturen zertzelada batzuk eskainiko ditut (§ 4.1, § 4.2), bai eta horiei beste hitz batzuk gehitzeko proposamena egingo ere (§ 4.3).

4.1. **einon*, *oñon* ~ *iño* eta *inotsi*

EHHEan (ikus orobat Lakarra, 2006, 597.-599. or.) azaltzen denez, *di(n)o* ‘esaten du’ saileko adizkiek, *oñon* ~ *iño* ‘kirrinka, marmarra, hotsa’ hitzek eta *iñotsi* ‘(euria, elurra) ari izan’ (cf. *iñutsi* ‘erauntsi’), erro bera dute. Bereziki nabarmena da *badinotso* bezalako formen polisemia: ‘esaten dio’ eta ‘euria ari du’. Guztiak **einon(tsi)* batetik letozke («Osaeraz, pentsa daiteke **einon* aditza dagoela honen oinarrian, *-tsi* bukaerarekin», EHHE, 413. or.), non *-ts* nolabaiteko datibo-marka gisa ulertu behar den adizki jokatuerei dagokienez (cf. *i-* aurrizkia ere), adiera jakin batean lexikalizaturik ageri dena. Kontuan harturik Lakarrak berak (2006, 598. or.) *-ts(-i)* hori atzerago *-s(-te)* < *-z(-te)* / *n_* berreraikitzen duela, arestiko **einon(tsi)* zuzendu eta **e-i-non(-z-i)* protoformaraino eramanez.

10 Ikus Ariztimuño (2012)-ko proposamena: **e-da-din* > *jin*.

11 Aurreko puntuan ekarri *jalgi*rekin batera, *jalki* eta *jaulki* ere aipagarri dira (baldin etimologia bera badute), dituzten ñabardura semantikoengatik.

4.2. *eusi*, *era(u)si* eta *erau(n)tsi*

Hitzok modu ezberdinetan daude aurrekoekin eta beren artean loturik (ik. EHHE, s. v.), baina orobat erator daitezke **non* errotik; oraingoan, baina, ez da **i-* aurritzirik tartean.

Kronologiak ere ez bide dira berberak: *eusi* ‘zaunka’ < **e-non-z-i* batetik zuzenean ateratzeko, aspaldi lexikalizaturik behar zuen; aldiz, **e-i-non-z-ik* ***inosi* ez, baizik eta *inotsi* eman zezan, ozen ondoko edo/eta aditzoinaren bukaerako afrikatzea beharrezko zen (aditzoin kategoriaren sorreraz, ikus Urgell, 2018). Interesgarriro, *eusi*-rako berreraikitzen den forma berbera behar da gure hizkuntzaren izenaren oinarria azaltzeko (**e-non-z(-i)* + **hala* > **ehoskara* > (*h*)*euskara*).

Halaber, horietatik edo horien antzeko forma banatetik eratorrita azal litezke *era(u)si* eta *erau(n)tsi* ~ *irau(n)tsi*, *ra-* aurritzia-rekin (zentzu arazle gardenaz ez bada ere). Beterie soinuaren (edo soinua egiten duen mugimenduaren¹²) eremu semantikoan gaude; animalien hotsa, ekaitza, hizketa, eta abar.

4.3. *aun*, *txanpa* eta *jauki*

Azkenik, EHHEan agertzen ez diren hiru hitzok (ik. OEH, s. v.) etimologia posibleak proposatu nahi ditut, haien bitxitasun zenbait azaltzeko balio dezaketelakoan.

Lehenik, Landuchiok baino ez dakarren *aun* (*egin*) ‘zaunka (*egin*)’ dugu, zeina Nafarraoko *aunkarekin* lotu behar den (besteak beste Lizarraga Elkanokoak darabile-na). Onomatopeia-itxura gorabehera (cf. *au*), *-ka* adberbiozkoa erantzirik *zaunkarekin* erkatu beharra dago. Hala, kontuan harturik, batetik, badirela *s-dun* formak (*sainga*, apikari-lepokari bereizketa gorde duen erdialdeko eremu nabarmen batean, izan ere) eta, bestetik, ekialdean *txainka* (E) eta (*t*)*xanpa* (BN, Z) aldaerak dituela, egiantzekoa dirudi jatorrizko **aun* bati (*t*)*x-* sasi-aurrizki adierazkorra erantsi izana eta, ondoren, despalatalizazioz, non *z-*, non *s-* «berrezarri» izana¹³; bilakaeren xehetasunak berdinderdinak izan ez arren, cf. *txatall/zatal* < *atal*, *txingure* < *ingude*, *zorabiatultxorabiatu* < **horabiatu*, etab. (ikus EHHE, s. v.; Mitxelena, 1977/2011, 154.-155. or., 243. or.).

Onomatopeia-itxura aipatu dut arestian, eta litekeena da hitzaren eta aldaeren bilakaeran balio fonosinbolikoak eragin izana; halere, une batez mendebaldeko *eusi* zaharrari begiratzen badiogu (egun *ausi* aldaeran nagusitu dena)¹⁴, eta haren etimologiatzat

12 Ez naiz hemen sartuko itxuraz *joan* eta bestetako **non* erroarekiko homofoniaren auzian (ik. EHHE, s. v.).

13 Iñigo Urrestarazuk Sakanako *jaunka* aldaera gogorarazi dit, [x] ahoskeraz; hain zuzen ere, despalatalizazioz gertatu ezear **xaunkaren* ondorengotzat alboko Gipuzkoan espero zitekeena.

14 Azkuek *aausi* aldaera ere badakar. Arrazoi fonetikoengatik bokal luzatzea izan liteke, edota beste forma zaharrago baina mendebaldeko testuetan lekukotu gabeko baten ondorengoa (cf. Oihenarten *adausi*, agian < **edausi* < **e-da-non-z-i?*). Artikulua amaiturik zegoela jakin dut Nafarroa Behereko *ihausi* ‘zaunka’ eta Zaraitzu-Erronkarietako haren aldaeren berri (*iaüsi*, *jaüsi*, *ñaunsi*, *xausi*); uste dut horiek guztiak **e-(i-)da-non-z-i* zahar batetik erator zitezkeela.

e-non-z-i* proposatu dela kontuan hartuta¹⁵, ezin baztertu bide dugu **e-non* > **ehon* > **heun* > (h*)*aun*¹⁶ bilakaera¹⁷.

Hala bada (eta *jardun/iharduki* bikotea gogoan), pentsa liteke ekialdeko *jauki* ‘oldartu, erantzuki egin’ aditzak eta horren eratorri eta aldaerek ere (*jaukin* ‘maiseatzaile’, *jaingin* ‘gaitz-erraile’, *jaukikatu* ‘aurpegiratu’) ez ote duten erro bera, azken batean: **e-(i-)da-non(-ki)*¹⁸.

5. ONDORIOAK

Horrenbestez, erakutsi uste dut ezen Garibaik *herir* aditza hizketarekin loturiko adiera jakin batean erabili zuela errefracuaren itzulpenetako batean eta, beraz, esan daitekeela *diagoren* oinarrian **non* erroa dagoela, *-i(n)o-* aipatu ohi dugun aditzarenean bezalaxe. Hain zuzen ere, adiera berezi horrekin lotu dut ekialdeko *jauki* aditza, zeina **e-(i-)da-non-ki* berreraiki daitekeen, *diagoren* hasierako hiatoa azaltzeko behar dugun **da-* aurrizkiarekin.

Hala bada, *diago* adizkia bera bi modutara berreraiki dezakegu, itzulpenetako ‘hieren’ eta ‘dize’ (eta *jaukirekiko* harremana) nola ulertzen ditugun. Alde batetik, hirugarren pertsona orokortzat hartuta (*diotsoren* modukoa formaz, baina inpersonala adieraz; cf. (9-14) adibideak), pentsa genezake amaierako *-o* bikoitza bakundu zela (**dia(g)o-o* > *diago*); edo, bestela, Ariztimuño (d. g.)-n *diago* ‘dio’ laguntzaile homograforako proposatutakoaren antzera, **-ao-o* > **-au.o* > ... > *-ago* gertatu zela¹⁹. Beste alde batetik, zehar-objektu edo helburuzko argumenturik gabeko forma gisa irakurriz gero (*dio*-ren modura), *diago* < **dia(h)o* (eta, zinez zaharra bada, < **d(a)-i-da-no(n)*) berreraiki dezakegu.

Bigarren proposamenak, hala ere, bi abantaila ditu: lehena, ez dela datibo-komunztadura inpersonalik behar eta, bigarrena, interesgarriena, morfo gehigarriak ñabardura semantikoa azaltzeko balio dezakeela. Nolabait, delako esana «norbaiti zuzendua» dela markatuko luke aurrizkiak, *ibiltzearen* eta *jarraitzearen* arteko alde bera, baina lexikalizaturik, sintaxian argumenturik erantsi beharrik gabe.

15 Erronkarierazko *aunsik*, dela **eũsi* (< **e-non-z-i*), dela **adaũsi* (< **edanonzi* ?) aldaeratik, kontsonante sudurkaria bermatzen bide du.

16 Agian *hauma* ‘zaunka’ aldaerako hasperena ere horrela azal daiteke (**haun(-)a?*).

17 Diptongoaren bilakaerarako, dagoeneko aipatutako *ausi* < *ensi* ez ezik, cf. *aurtiki* < **egor-*, *ausiki* < **eusiki*, edota Leiz *aunlauk* < **e(d)unl***e(d)uk* (Mitxelena, 1977/2011, 83.-84. or.; EHHE, s. v. *aurtiki*). Bide batez, ez litzateke zaila *ausiki* hitza ere *ausirekin* lotzea, batez ere RSk *esugi* aldaerari ere etimologia bera onartuko balitziaio: **eusi-gi*.

18 *Jauki* eta beraren familiaren argitan, espekulatiboki bada ere, aztertzekoa iruditzen zait hizpide dugun erroa *jaunen* osieran ote den (esanahia ez aberastasunari lotua, baizik eta aginteari?), eta erro bera edo, zuhurkiago, haren homofonoa (cf. *joan* < **e-da-non*) *jaugin* aditzarenean, horren osaera azaltzea erraza ez bada ere, bereziki amaierako *-gin* (baina cf. OEHn horren eratorritzat hartzen diren *jaugi*, *jaingin*, *jaukin* ‘jaiera’).

19 Dela (**VuV* > **VbV* >) **V.V* > *VgV* epentesiaz, dela **VuV* > **VubV* > *V(*u)gV* bilakaeraz.

6. ERREFERENTZIAK

- Altuna, P. (arg.) (1980). *Linguae vasconum primitiae. Edizio kritikoa*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Altuna, P. & Lakarra, J. A. (1990). *Manuel Larramendi. Euskal testuak*. Andoain: Andoaingo Udala.
- Ariztimuño, B. (2012). Etimologiak ate-joka: *din-don...* (*jo eta josi; eman eta iramo(n); jin eta jainko*). *FLV*, 114, 119-128.
- Ariztimuño, B. (d. g.). Beste aditz laguntzaile ditransitibo bat Gipuzkoa mendebaldean. *ASJU* aldizkarian argitaratzeko onartua.
- Bilbao, G. (1994). XII. mendeko Euskal Herria Santiago bidean: Liber Sancti Iacobi V, 7. *Uztaro*, 10, 61-84.
- Bilbao, G. (2021). *Lubieta donostiarraren eskuizkribua (1728)*. Eskuizkribu argitaragabea.
- Covarrubias, S. (1611). *Tesoro de la lengua castellana o española*. Madril: Luis Sánchez. Euskaltzaindia. (2020). *Orotariko Euskal Hiztegia* (bertsio elektronikoa 7. arg.). https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_oehberria&task=bilaketa&Itemid=413&lang=eu helbidetik eskuratu.
- Lafon, R. (1943). *Le système du verbe basque au XVIe siècle*. Bordele: Delmas.
- Lakarra, J. A. (1986). XVI. mendeko bizkaierazko erretrauz: I. Garibairen bildumak. *ASJU*, 20(1), 31-65.
- Lakarra, J. A. (1996). *Refranes y Sentencias (1596): ikerketak eta edizioa*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Lakarra, J. A. (2006). Notas sobre iniciales, cambio tipológico y prehistoria del verbo vasco. *ASJU*, 40, 561-622.
- Lakarra, J. A., Manterola, J., & Seguro, I. (2019). *Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa (EHHE-200)*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Leizarraga, J. (1571). *Iesus Christ Gure Iaunaren Testamentu Berria*. Arroxela: Pierre Hautin.
- Mitxelena, K. (1956/2011). N. Ormaetxea «Orixe», Agustiñ Gurenaren aitorkizunak, Zarautz 1956. In J. A. Lakarra & I. Ruiz Arzalluz (arg.), *Luis Michelena. Obras completas, XIII* (ASJUren gehigarriak, 56) (496.-499. or.). Donostia & Gasteiz: Gipuzkoako Foru Aldundia & UPV/EHU.
- Mitxelena, K. (1964/2011). *Textos arcaicos vascos*. In J. A. Lakarra & I. Ruiz Arzalluz (arg.), *Luis Michelena. Obras completas, XII* (ASJUren gehigarriak, 55) (11.-197. or.). Donostia & Gasteiz: Gipuzkoako Foru Aldundia & UPV/EHU.
- Mitxelena, K. (1977/2011). *Fonética Histórica Vasca*. In J. A. Lakarra & I. Ruiz Arzalluz (arg.), *Luis Michelena. Obras completas, VI* (ASJUren gehigarriak, 49). Donostia & Gasteiz: Gipuzkoako Foru Aldundia & UPV/EHU.
- Mitxelena, K. (1979/2011). Algunas observaciones sobre los cantares de la quema de Mondragón. In J. A. Lakarra & I. Ruiz Arzalluz (arg.), *Luis Michelena. Obras completas, XI* (ASJUren gehigarriak, 54) (496.-499. or.). Donostia & Gasteiz: Gipuzkoako Foru Aldundia & UPV/EHU.
- Mounole, C. (2011). *Le verbe basque ancien : étude philologique et diachronique* (doktore-tesia). UPV/EHU & Bordeaux III - Michel de Montaigne. <https://www.educacion.gob.es/teseo/mostrarRef.do?ref=959808#>.

- Mounole, C. (2015). Datibo-komunztaduraz eta laguntzaile hirupertsonalen diakroniaz. In B. Fernández & P. Salaburu (arg.), *Ibon Sarasola, Gorazarre. Homenatge, Homenaje* (473.-490. or.). Bilbo: UPV/EHU.
- Urgell, B. (arg.) (2015). *Gero (edizio kritikoa)*. Bilbo: Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia.
- Urgell, B. (2018). Zer da lehenago, aditzoina ala partizipioa? Oharrak euskararen kronologiarako. *ASJU*, 52(1/2), 777-816.
- Urkizu, P. (1989). Garibairen eskuizkribu galdu bat (1592). *Mundaiz*, 37/38, 33-85.
- Urquijo, J. (1919). *El refranero vasco. Tomo I: Los refranes de Garibay*. Donostia: Martín, Mena y Compañía.
- Zubiaur, J. R. & Arzamendi, J. (1976). El léxico vasco de los refranes de Garibay. *ASJU*, 10, 47-144.

